


BERRIGARA

291. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1997, irailak 19



Eibar-Gasteiz Autopistako proiektua prest

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46

BERGARA (Gipuzkoa)
Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:

TAKOLO AUTOAK


Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa)

Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.

ALZAS ELEKTRAGINTZA

Korronte alferno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta abiada
haundiko induzituen
konponketa eta
bobinaketa



Antigua auzoa, 3 Telefonoa: (943) 76 64 14 Faxa: (943) 76 62 99 20577 ANTZUOLA



**EUSKARA
GALDUZ GERO
AKABO
EUSKAL HERRIA**

Izena eman

ækⁿ

Tf. 76051

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarte.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Mikel Elkoroberezibar

Maketazioa:

Itxaki Iturbe

Publizitatea:

Kristina Romero

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Esteban Plazaola

Maripi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezibar

Alex Labaien

Komikiak:

Artor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Itxaki Azkarate

Banaketa:

Itxantxangorri taldea

Tirada:

4.800 ale.

Inprimategia:

Santu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

133/50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iruzkinen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

JOSEAN AZKARATE

Novedades zinekoa

- Noiz hasiko dira zine-klubeko emanaldiak?

- Seguruen urriaren 23an hasiko gara zine-klubeko emanaldiekin. Aurreko bi ostegunetan badirudi beste bi zine emanaldi izango direla: alde batetik Komite Internazionalistak taldekoek Donostiako Zinemaldian aurkeztu den Ernesto Che Guevarari buruzko filmea ekarri nahi dute urriaren 9rako eta, bestetik, Forum Cinematographe taldeak Alfred Hitchcock zuzendariaren "Vertigo" filme ospetsuaren kopia berriztua iragarri dute urriaren 16rako.

- Ze erantzun izan zuen iaz zine-klubak?

- Aurreko urteetako antzerakoa. Badaude ikusle asko erakartzen dituz-



ten filmeak, baina bataz beste 50 lagun etorriko ziren asteroko emanaldieta. Uste dut inguruko herrietan ere antzerako zer-bait gertatzen dela, azken batean ez baitira filme oso ezagunak zine-klubetan programatzen direnak. Normalean zirkuito komertzialetan arrakastarik izan ez eta gehienetan gutxiengo bati zuzendutako filmeak dira.

"Seguruen urriaren 23an hasiko gara berriz ere zine-klubaren programazioarekin"

I T U R R I O N E T I K

San Martin plazan pizzeria bat jartzeko eskakizuna jaso da

Bergarako San Martin plazan pizzeria bat jartzeko eskakizuna egin da Udaleko Hirigintza Batzordean. Aspaldiko asmo bati eutsiz, aipatutako pizzeria, lehengo azoka eta Correos-eko bulegoa zegoen edifizioaren goialdean (Artekale aldera) kokatuko litzateke nahiz eta oraindik ez den horretarako inolako fetxaririk zehaztu. Dena den, pizzeriaren promotoreak eta udaleko ordezkariak elkarrizketetan dihardute eta oraingoz asmoak aurrera darrai; datorren urtean pizzeria martxan jartzeko aukera asko daudela adierazi digute Hirigintzako ordezkariak.

E S A N
D U T E

"Ikusleak margoez gozatu beharko luke ahal den neurrian.

Nahiz eta koadro bakoitzaren atzean halako zangalatraba kontzeptual bat egon daitekeen, guri hori ez zaigu interesatzen (geuretzat bai, baina ez ikuslearentzat).

Hau koadro-bilduma dugu, balioa koadro bakoitzak du berez, ez koadroren baten

edo besteren bertsioa delako.

Bertsioei aurkitu izan diegun arazoa da, bertsioa ulertzen dela beste norbaiten

koadroaren zeureganatzea bezala, zeure egiteko modura ekartze bezala, *estilatzea* bezala: indar guztiak xahutzea margoa "zeure" bihurtzen.

Guk ez genuen hori egin nahi, hori botere-ekintza baten modukoa izango litzateke. Koadroak ez daude gutako bataren edo besteren ohiko estiloan landuta: koadro bakoitzak darama bere egiteko modua, bere prozesua"

MANU MUNIATEGI
eta
JOSE RAMON AMONDARAIN
Margolariak
EL DIARIO VASCO

**BATMAN & ROBIN**

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

**MURDER AT 1600**

Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

▼▼ Joan zen zapatuan martxan jarritako **Xake astearekin** jarraituz, astebukaera honetan ere xake ekitaldiak izango ditugu herrian: gaur ostirala 7etatik aurrera Bergara eta Arrasateren arteko neurketa izango da Zabalotegin; bihar, zapatua, eta domekan, Nazioarteko II. Xake promozio txapelketa jokatu da Kultur Etxean 10etatik aurrera.

**Zinea**

▼▼ **Joel Schumacher** zuzendari ezagunak errodatu du komiki heroian oinarritutako filme berri hau, aurrekoetan moduan primerako errepertoa osatuz. Oraingo honetan **Arnold Schwarzenegger, George Clooney, Chris O'Donnell** edo **Uma Thurman** ditugu protagonista lanetan. Efektu berezi eta ambientazio bikainak.

▼▼ **Regis** detektibeari (**Wesley Snipes**) Washingtoneko Etxe Zuriko langile baten hilketa ikertzea aginduko diote. **Regis** berehala konturatuko da Etxe Zuriaren inguruan zer nolako kontuak ezkutatzen diren eta bere eginkizunean **Nina Chance (Diana Lane)** agentearen laguntza izango du. **Daniel Benzali (Murder One** telesaila) aktorearen partaidetzarekin.

Deiak

▼ **Iker Zabala** zenaren ome-nezko mendi irteera domekan 08:30etan Beheko Estaziotik.

▼ **Mendi-irteera** beteranoentzat hilaren 28an Markina-Amorotora. Izen-ematea Pol-Polen.

▼ **Bingen De Pedoren** margerakusketa Nahikari tabernan.

▼ **1933an** jaiotakoen bazkaria domekan Antxonin; 12:30etan meza. Izen-ematea Antxonin eta Intxortan.

▼ **1961**ean jaiotako bergarren bazkaria urriaren 4an. Izen-ematea Nahikarin eta Dixulan.

▼ **Napalm Death** taldearen kontzertua gaur 10etan Jam aretoan.

▼ **Odol ateraldia** eguastenean 18:30etan Seminarioan.

Ogia

▼ **Domeka 21:** Ogizun.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 19:** Guallar.
- ▼ **Zapatua 20:** Estella.
- ▼ **Domeka 21:** Estella.
- ▼ **Astelehena 22:** Mozos.
- ▼ **Martitzena 23:** Camacho.
- ▼ **Eguaztena 24:** Puy.
- ▼ **Eguena 25:** Guallar.

SUBIJAi

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

**KORTA-ZAR**

Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoan espezialitatea

OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK


Barrenkale, 16 ☎ 76 20 62

Pintura ikusgai

San Martinetako pintura lehiaketako lanak Kultur Etxean

Joan zen astebukae-ran pintura lehiaketan parte hartu zuten lanen erakusketa egongo da ikusgai domekara arte Kultur Etxeko erakustokian. Ageriko pintura lehiaketaren XXIV. edizioan 30 partaide aritu ziren lehian, 26 nagusien mailan eta gainontzeko laurak gazteen mailan. Guztiak goiz osoan zehar izan ziren herriko txokorik politenak jasotzen eta arratsalde sari banaketa egin zen. Epaimahai lanetan Miguel Okina, Juan Jose Altuna, Bingen De Pedro eta Rikardo Azkargorta izan ziren eta lan guztien balorazioa egin ondoren bi kategorietako sariak erabaki zituzten.

Nagusietan, 23 urtetik gorakoen artean, Jon Idigoras ermuarrak eraman zituen lehen sariari zegozkion 80.000 pezeta eta trofeoa. Idigorasek erreka aldera dauden Zubietako etxe batzuk margotu zituen kolore biziak erabiliz. Bigarren saria (60.000 pezeta eta trofeoa) Astrabuduako Jose Miguel Arranz-en koadro abstrakto batentzat izan zen eta Juan Carlos Carrillo debarrak 3. saria lortu zuen. Carrillok Bide-



Pintura lehiaketaren 24. edizioan 26 lagunek hartu zuten parte nagusien mailan eta lauk gazteenetan.

berritik Usondoko parkea eta Deba ibaiaren ikuspegi jaso zuen eta 40.000 pezeta eta trofeoa eskuratu zituen. Azkenik, Antxon Arrillagak bergarar onenaren saria (35.000 pezeta eta trofeoa) lortu zuen Laudantz kaletik begiratuta San Pedro agertzen zen koadro bati esker.

Gazteen maila

Gazteen mailan Eluska Zabalo arrasatearrak irabazi zuen. Eluskak 30.000 pezeta eta trofeoa eraman zituen expresionismo kutsudun koadro bategatik. Bigarren saria Usoa Mendikute bergararrantzat izan zen. Usoak San Pe-

droko dorrea margotu zuen eta 15.000 pezeta eta trofeoa eskuratu zituen eta, azkenik, hirugarren saria (10.000 pezeta eta trofeoa) Irune Zubizarreta eibartarrari eman zitzaion San Antonio azaltzen zen lanagatik.


Esan bezala, datorren urtean zilarrezko eztaiak beteko dituen lehiaketa honetako lanik onenak Kultur Etxean ikusi daitezke domekara arte 12:00etatik ordubietara eta 18:00etatik 21:00etara.

Lehiaketara 30 lagun aurkeztu dira aurten; irabazlea Jon Idigoras izan da

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegaraletan.
Tfnoa: 76 27 93



Amillaga (Gasolindegi ondoan). Tfnoa: 76 57 34

**ZABALETA
ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskapareak...

Zuzenketa batzuk

Astekari honetan kaleratutako "Gerrako kontuak" erreportaiari agertutako zenbait huts direla eta, Ondo Bihurtu taldeak ondorengo zehaztapenak egin nahi lituzke:

Guardia Zibilaren Artxibo Historikoa esaten duen tokian Gerra Zibilaren Artxibo Historikoa esan beharko luke. Salamankan dago eta gerra garaian frankistek Euskal Gobernuari harrapatu zioten dokumentazio guztia dago bertan.

UHP batailoien ideologia aipatzean, gehienak CNTkoak zirela adierazten da. CNT-k berez, oso-oso militante gutxi zuen hemen eta egoitzarik ere ez zuen izan, herriko indar politiko nagusi guztiek izan zuten bitartean. UHP-n, batez ere, joera eta sentimendua desberdineko gazte adonek bultzatzen ziren, beren buruei "ezkerrak" izena jarri zietenak. Bera izan zen bergarar gehien (berrehun bat inguru) izan zuen batailoia eta kideen artean denetik zegoen: UGT-ko sindikalistak, JSUko (Juventudes Socialistas Unificadas) jendea, komunista batzuk eta baita Izquierda Republicanakoak ere, jeneralean Bidekurutzetako Casino Republicanoan biltzen zirenak.

Ondo Hurbildu-rik ez zen inoiz izan eta bai, ordea, Ondo Bihurtu eta handik hartu dugun izena gu mugitzen garen testuinguruan izen horrek karga sinboliko handia duela. Koadrila batu hura, nazionalistaz eta ezkerreko gazte osatutakoa, garai haiek Bergarako gizarte-bizitza aberats eta ekimentsuaren ordezkari zena, Gerra Zibilak, inork nahi ez zuen konfliktu hark, euskal

gizarteari ekarri zizkion ondorio latzen agerikari izan zen. Beraietako asko elkarren kontra borrokatu beharrean izan ziren, une hartako zirkunstantziak derrigortuta.

Amaitzeko, Ondo Bihurtu bergarar guztiei (garai haien lekuko izan zirenei eta izan ez zirenei) eskatu nahi die gure proiektuarekin kolaboratu dezatela beren testigantza, argazkiak eta dokumentuak ekarri, edota, erdi tabu erdi kondaira bihurtu ditugun baina gugandik oso hurbilekoak diren gertakari haiei buruzko ikerketan lagunduz. Harremanetarako 76 51 82 telefonora deitu dezakezue.

ONDO BIHURTU

Udal igerilekuak

Yosune Linazisorori eta Mikel ardurakari:

Gaur irailak 17, goizeko 11 t'erdietan eguraldi zoragarria aprobetxaturik, eguerdiko ordubatera arte igerilekura joatea pentsatu dut, eguzkia hartuz. Hamakak erretiratu ta zeuzkaten datorren urtera arte eta beguneara umela ez, baizik eta oso bustita zegoenez, piszina txikiaren ondoan, oso txiki diskretuan jartzea pentsatu dut. Mikelek esan didate: "Sentitzen duzue, Yosune eta Mikel, zera esan didate: "Sentitzen duzue, andrea baina belargune bustira joatea beharra daukazu. Piszinara etortzen uzteak mesede bat egiteagatik da, sarrera debaldelako eta denboraldia amaituta dagoelako". Hasieran ezezkoa eman diet eta bigarren aldiz etorri direnean eskerrak eman eta nire etxera joatea erabaki dut, pentsakorak bi "gaztetxo" horiei, entitate publiko bat zuzentzea nahi badute, "soziologia" piszina ikasi beharra dutela esateko gogoiz.

Datorren udan pertsonala hobetuko du zuelakoan, begirunez agurtzen zaituztet.


MARI KONTXI GARAIONDO (OSINTXU)

NAN: 15.336.313

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ



Gripearen kontrakoa

Urri bukaerara arte hartu ahal izango da gripearen kontrako txertoa. Kanpaina 65 urtetik gorakoei eta bronkitis kronikoa, bihotzekoa, Diabetes mellitus eta giltzurrun edo gibelego eskasiak dituzten 65 urtetik beherakoei bideratuta dago. Toki hauetan hartu ahal izango da: anbulatorioan, egunero 10:00etatik 12:00ak bitartean; Kiroldegian, datorren eguakitzean, hilak 26, 10:00etatik 11:00ak arte, eta Osintxun, urriaren 8an 10:00etatik 12:00etara.

Meningitisaren kontrako txertoa ematen hasi dira



Anbulatorioan txertoa hartzeko txanda eskatu behar da.

Eguastenean hasi zen Bergaran meningitisaren aurkako kanpaina. 18 hilabeteko haurretatik hasi eta 21 urte bitartekoentzat bideratuta dago kanpaina. Aste honetan Osakidetzako anbulatorioan hasi dira txertoa ematen eta datozen asteetan herriko ikastetxeetan emango zaie ikasleei. Anbulatorioan urriaren 30era arte emango da txertoa.

Anbulatorioan eta eskoletan

Asmoa anbulatorioan eskolarizatu barik dauden haurrei, hau da, hiru urtetik beherakoei, eta ikasketak laga dituztenei bakarrik ematea da eta gaintzekoei ikastetxeetan. Halere, anbulatorioan edozeinek hartu dezake eta horretarako txanda hartu behar da aurretik.

Txertoa hartzeko ordutegia eguerdiko 12:30etatik 14:30ak arte da eta egunero 42 laguni ematen zaie.

Ikastetxeetan hil bukaerara edo urriaren lehenengo egunetara arte ez da txertorik emango. Aranzadi Ikastolan, esate baterako, irailaren 28 eta 29an bakunatuko dira eta Mariaren Lagundian, ostera, urriaren 1ean eta 2an; San Martin ikastetxean irailaren 25an emango da txertoa. Ipintza eta Migel Altuna institutuetan oraindik ez dira klaseak hasi eta ez dakigu noiz emango den.

Ez da beharrezkoa

Txertoa hartzea ez da beharrezkoa, beraz, eskoletan txertoa emateko guraoen oniritzia jaso behar da lehenengo; horregatik herriko ikastetxeetan idazkiak etxera bidaltzen hasi dira aste honetan.

HILDAKOAK

Angel Izukiza Makazaga
Irailak 17, 39 urte.

JAIOTAKOAK

Itxaso Calbano Osinaga
Irailak 5.
Uxue Azkarate Barruso
Irailak 9.
Mireia Franco Ezpeleta
Irailak 9.

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA



**DEBA
GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

iRUDI

**Erlojudenda
Bitxitegia**

Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

ileapaindegia

eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

Alderdi eguna

Hilaren 28an, domeka, Gasteizko Salburuako zelaietan ospatuko den Alderdi egunerako autobusak antolatu ditu Bergarako Eusko Alderdi Jeltzaleak. Autobusak goizeko 9etan Beheko Estaziotik irtengo dira eta izena emateko Batzokiko tabernara joan behar da.

Gorraren eguna Gasteizen

Gorraren Nazioarteko Eguna dela eta, manifestazioa egingo da datorren zapatuan (hilak 27) Gasteizen. Bergaratik autobusa irtengo da Beheko Estaziotik 16:00etan; itzulera 21:00etarako iragarri da. Prezioa: 750 pezeta nagusientzat eta 500 haurrentzat. Interesa dutenek Kutxako 21010206110000071811 kontu zenbakian ordaindu beharko dute hilaren 22a baino lehen.

Bedelkarreko harategien zozketa

Bedelkarreko harategiek joan zen zapatuan antolatutako zozketan (txerria edo 50.000 pezeta) 7.776 zenbakiari egokitu zaio saria. Bestalde, astero zozketatzen dituzten txuleta 2.589 zenbakia duenarentzat izango dira aste honetan.

Orfeoiaren entsaioak

Bergarako Orfeoiak ekin die udako oporraldien osteko entsaioei. Martitzen eta eguenetan 21:00etan izango dira entsaioak Zabalotegiko aretoan. Orfeoia zabalik dago parte hartu nahi duten guztientzat eta bereziki gizonen ahotsak nahi dituzte. Interesa duenak entsaioetara agertzea besterik ez du.

Emakumeentzako ikastaroak

Emakumeentzako yoga, brikolage eta formazio ikastaroetarako izena emateko epea zabalik dago. Interesa duenak, Irizar Jauregiko bigarren pisuan eman dezake izena 09:00etatik 13:00etara.



Gero eta gehiago dira Udalera doazenean euskaraz hitz egiten duten herritarrak.

Udaleko idatziak euskaraz jasotzeko kanpaina martxan

Helburua, herritarren arteko harremanak euskaraz izatea

Herritarrek Udaleko idatziak euskara hutsez jaso ditzaten bultzatzeko kanpaina aurkeztu zen Udaletxean joan zen egunean. Asmoa Udalak gero eta herritar gehiagorekin harremanak euskaraz izatea da. Kanpainaren aurkezpenean Koldo Pereira euskara zinegotzia, Estepan Plazaola euskara dinamizatzailea, Juan Inazio Galdos udal langilea eta Udalarekin euskara hitzarmena sinatuta duten bi taldeko ordezkariak izan ziren: Kukumako Mikel Ibarzabal eta Pol-Poleko Txema Arenaza.

Une honetan Bergarako Udalak 3.300 herritarri bidaltzen dizkie idatziak euskara hutsez. 1991. urtean, biztanleriaren errola egin zenean, 16 urtetik gorako herritarrei galdetu zitzaizen Udaleko idatziak euskaraz jaso nahi zituzten ala ez eta 3.300 lagunek baietz erantzun zuten. Harrezkero, horiei guztiei paperak euskara hutsez bidaltzen dizkie Udalak; gainontzekoei elebitan. Halere, orduan 16 urte zituztenek gaur egun 22 dituzte eta adin horretatik 16 urtera artekoak ez zaie galdetu idatziak nola jaso nahi di-

tuzen, iazko erroldan ez baitzen galdera hori egin. Orain, berriz, 16 urtetik 22 urtera artekoak bideratuta dago martxan jarri den kanpaina berri hau.

Adin tarte horretan dauden gazteei gutun bat bidaliko zaie edo herriko ikastetxeetan banan-banan galdetuko zaie, ea Udalak bidaltzen dizkien idatziak euskara hutsez jaso nahi dituzten. Interesatuak paper bat bete, sinatu eta Kultur Etxean eta Udaletxean jarri diren kutxetan sartu beharko dute. Bestalde, Udalak euskara/gaztelera hiztegitxo bat kaleratuko du; horrekin batera, herritarrek Udalean eskakizunen bat egin behar dutenean nola egin behar duten erakusten duen instantzia eredu batzuk eta kale izendegi berria ere joango dira.

Bergarako Udala bere funtzionamenduan euskararen erabilera bultzatzeko ahaleginetan dihardu azken urteotan: bertako langileek beren hizkuntz eskakizunak betetzen dituzte, euren arteko harremanak euskaraz izaten dira eta herritarre ahoz zein idatziz euskaraz atentziazko inolako eragozpenik ez dago.

Jubilatuek antolatuko duten kultur hamabostaldiko egitaraua prest

Datorren eguakitzean, hilak 26, aurkeztuko da herriko jubilatuek urrian antolatuko duten kultur hamabostaldiko egitaraua jasoko duen kartela. Aurkezpen ekitaldia 19:30etarako iragarri da Kultur Etxean eta bertan, Dani Laskurain, aukeratutako kartelaren egilea izango da. Ondoren, kartel lehiaketara aurkeztutako lanen eta jubilatuek egindako eskulanean erakusketa zabalduko da Kultur Etxeko erakusgelan. Kultur hamabostaldian, erakusketaz gain, mahainguru bat antolatuko da. Bertan, herriko hainbat giza taldetako ordezkariak hartuko du parte eta jubilatuek gaur egungo gizartean betetzen duten paperari buruz jardungo dute.

ARTIBOIA



Besteak beste, jubilatuek gaur egungo gizartean betetzen duten papera oztertuko da.

Azokako zozketa

Azokako dendariak egindako zozketan urdaiazpiko bana jaso dute lau hauek: Rosario (76 46 19), Rosa (76 25 20), Luis (76 46 03) eta Esther (76 34 83).

Fandangoa eta arin-arina

Moises Azpiazu dantza taldeak 4 urtetik 9 urtera artekoentzat antolatzen duen dantza ikastaroa urriaren 6an hasiko da. Urtean zehar astelehenetik eguakitzera bitartean eskolatik irten ostean emango dira klaseak. Izen-ematea 76 15 40 telefonoan.

Estanpako bideoa

“San Martinen Estianpa” ikuskizunean hartutako irudiekin egindako bideoa salgai izango da datorren astetik aurrera Musika Eskolan. Bideoak 2.000 pezeta balio du eta hasiera batean lehendik eskaria eginda zutenek erosi ahal izango dute bakarrik. Bideoa hartzeko ordutegia honako hau izango da: hilaren 17tik 25era arte, 17:00etatik 21:00ak bitartean.

Ongi etorri euskarara!

Ongi etorri Bergarako Udal Euskaltegira!



1997-98 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA maila guztiak

Eskaintza bereziak

Guraso eta merkatariei egokitutako taldeak

Erritmoak

2 ordu egunero (iraila-ekaina)
5 ordu egunero (iraila-otsaila) / (otsaila-ekaina)
Astean 2 egunetan, 2,5 ordu (iraila-ekaina)

Eskaeren arabera beste erritmo batzuk ere eskaini daitezke. Bekatze sistema eta diru laguntzak ditugu 16 urtetik gorakoentzat

Bulego ordutegia

Goizez 08.30-12.30 • Arratsaldez 14.30-19.00

Matrikulaldia




Irailaren 1etik 18ra arte

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13
BERGARA
Tel.: 76 44 53



San Martin jendetsuak



San Martin jai jendetsuak izan dira aurtengoak. Zapatu eta astelehen gauetan batez ere, herritar eta kanpotar ugari ibili zen kalean tabernarik taberna. Bestalde, aurtengo San Martin jaietako protagonistetako bat eguraldia izan da. Zapatu goizean eguraldi eskasa egin zuen eta barazki, lora, fruta eta gazta lehia-

ketako postuak San Martin plazako eta Seminarioko arkupetan jarri behar izan zituzten. Eguraldi txarra dela medio, bestetan baino jende gutxiago ibili zen kalean. Domeka, astelehen eta martitzenean, ostera, eguzkia izan genuen lagun. Barazki, lora, fruta eta gazten lehia 30 bat lagun hartu zuten parte. Barazkietan, Antzuolako Lapatza baserriko Tomas La-

rrañaga izan zen garaile. Herriko onenaren saria, berriz, Maria Egizabal Urrupain-Gainekoak jaso zuen. Frutetan, Kontxi Izagirre antzuolarra izan zen txapel-dun eta gazta lehia ketan, Jose Jauregi, hau ere antzuolarra, Lamaino baserrikoa. Loretan, azkenik, Begoña Arteaga uberarrak jaso zuen lore moztuen lehen saria eta San Blaseko Etxe Alaiko Fidela Gabilondok

etxeko lorena irabazi zuen. Bestalde, zapatu eguerdian Gorlan, antzinako aurrekar gazko armekin plater tiraketa jokatu zen. Behelalanoa ez zen oztopo izan parte hartu zuten 23 tiratzaileentzat. Eguraldi txarrari aurpegi ona jarri eta gustora pasatu zuten goiza. Aurtengoan, gainera, aulki batean jarrita toldopetik egin zuten tiro. Sariak Araba eta Donostia aldera joan ziren.



Artatse elkartekoen, bestalde, zikiro-jana antolatuzuten zapatuan San Martzialen. 40 bat lagun elkartuziren baztandarrek erre-tako zikiroa jateko. Domeka goizeko pintura lehiaketa Jon Idigorasek irabazi zuen (80.000 PTA); bergarar onenaren saria, Antton Arrillagak jaso zuen (35.000 PTA). Aurtengo edizioan 23 urtetik beherakoentzat gazteen maila

eratu da eta Eluska Zabalo izan zen garaile (10.000 PTA eta trofeoa). 30 lagunek hartu zuten parte lehiaketan, 4 gazteen mailan eta beste 26 nagusienan. Astelehen gauean sekula baino burrunbada haundia goa izan zen danborradan. Aurten barrilerak izan dira nobedadeetako bat, aspaldian ez baita nesken talderik irten danborra jotzen.

Beste nobedade nagusia, artillero talde batek jaurtitako kainoikadak. Danborradari amaiera eman ziona sekulakoa izan zen. Danborradaren aurretik, iluntze partean, presoen aldeko manifestazioa egin zen herrian zehar Amnistiaren Aldeko Batzordeak deituta. Hurrengo eguneko danborrada ere berezia izan zen. Ohiko haurren danborradaz gain, danborrada japoniarra

ere egin zen eta amaieran Plazan San Martinen Estanpako pasarte batzuk antzeztu ziren, San Martinen gurutzeratzearekin amaiera emateko. Danborrada baino lehen, martitzen eguerdian, Meza Nagusia izan zen San Pedron, Udal korporazioa bertan zela eta Udal Musika Bandaren laguntzaz. Meza ostean, Musika bandak kontzertua eskaini zuen Plazan.

Osasuna

Animalien elikadura

- Zela elikatzen dira etxeko animaliak?

- Gure etxeko animalietan hiru elikadura mota bereizi ditzakegu: etxeko elikadura (eguneko janaren hondarrak) batetik, pentsu eta latekin egiten den elikadura berezia bestetik eta, azkenik, mistoa (bien arteko nahasketa). Nire ustetan mistoa edo soilik pentsu konposatuarekin egiten dena dira elikadura onenak.

- Zein abantaila ditu pentsu konposatuak etxeko janarekin konparatuta?


- Pentsu konposatua oso konpletua da konposaketan haragia edo begalen deribatuak daudelako. Era berean, bitaminak, kaltzioa eta koi-pea dauzka eta hau oso inportantea da animalia egoki hazteko eta ile osasuntsu eta distiratsua izateko.

Bestalde, pentsu konposantua ere oso aproposa da, boltsatik atera eta jateko gertu dagoelako. Luzaroan ondo kontserbatzen da eta mendira edo beste norabait era-


mateko ez du inolako arazorik ematen. Animaliak elikadura mota honekin ohitzen direnean, asko gustatzen zaie pentsu konposatua.

- Pentsu konposatu guztiak berdina dira?

- Ez. Orokorrean hiru pentsu mota edo maila daudela esan genezake: altua, erdikoa eta baxua. Prezioaren arabera da sailkapen hori. Era berean, maila bakoitzaren ban-

“Animalien elikadurarekin ezin dira aldaketa sakonak egin egun batetik bestera”

Txakur bakoitzari bere adinari dagokion pentsua eman behar zaio.



PEPE FERNANDEZ

(Albaitaria)

ruan txakurkumeentzako pentsuak, txakur gazteendakoak eta txakur helduei zuzendutakoak bereiztu behar dira. Txakur bakoitzari bere adinari dagokion pentsua ematea oso garrantzitsua da.

- Txakur gaisoentzat dieta berezirik gomendatzen da?

- Bai, zenbait gaisotasunen kasuan elikadura kontrolatzea ezinbestekoa da. Giltzurrun edo bihotz arazoak dituztenentzat edota alergikoak edo diabetikoak diren animalientzat pentsu bereziak daude. Elikadura egokia eta medikazioa dira gaisotasun askoren tratamendurik onena.


- Beste gomendiorik egingo zenuke?

- Txakurren kasuan ohizkoa da hezurrik ematea, baina ez da batera ona oilaskoaren hezur luzeak eta finak ematea askotan mesedegarri baina gehiago kaltegarria izan daitekeelako. Bestalde, elikadurarekin ezin dira aldaketa sakonak egin egun batetik bestera, animaliek asko nabaritzen dute eta. Aldaketak egin behar badira, piskanaka-piskanaka egitea komeni da, animalia ohitzen joan dadin.

- Arrain, dortoka eta beste animalien elikadurari buruz zer esan daiteke?

- Horrelako animalien kasuan elikadura aurrekoetan baino garrantzitsuagoa da, etxeko dieta batean topatzeko nekezak izaten diren osagarri batzuk beharrezkoak dituztelako. Onena, janari bereziak erosi eta albaitariari kontsultatzea izatea da kasu bakoitzean zer egin behar den jakiteko.

ESPOLON



School of English

Umeak, 6 urtetik gorakoak


97-98 ikasturterako matrikula zabalik

Ingeles orokorra, teknikoa, komertzial eta azterketa ofizialetarako prestaketa

KLASEAK, GOIZEAN, EGUERDIAN NAHIZ ARRATSALDEAN

Zorionak Cambridgeko Unibertsitateko azterketak gainditu dituzten gure ikasleak
Proficiency: % 100 First Certificate: % 73 PET: % 84 KET: % 86

Ibargarai, 31 Juan XXIII plaza Tf. eta F. 76 03 53



Eibar-Gasteiz
autopistak bi peaje
izango ditu herrian,
aurrenekoa
Ondartzako harrobien
aurrean.

Autopista

Proiektua Udaletxean ikusi daiteke

Eibar-Gasteiz autopistaren trazaketa aurkeztu ondoren, autopistari buruzko alegazioak egiteko epea datorren irailaren 30era arte izango da zabalik. Ordurarte autopistaren inguruko erakusketa zabaldu da Udaletxeko Gobernu Batzordearen gelan eta, era berean, Udal Bulego Teknikoan kontsultak egiteko aukera dago.

Eibar-Gasteiz autopistaren trazaketa joan zen uztailaren 30ean aurkeztu zen eta orain autopistak zeharrikatzen dituen herrietan

alegazioak aurkezteko epea zabaldu da.

Bergarako Udaletxeko Gobernu Batzordearen gelan trazaketaren mapak jarri dira eta, era berean, Bulego Teknikoa zabalik dago asteleheneratik ostiralera bitartean 8etatik ordubietara herritarrek beharrezko kontsultak egiteko aukera izan dezaten (trazaketa zatika ezagutzeko aukera dago). Udaletxean kontsultak bakarrik egin ahal izango dira, alegazioak, irailaren 30a baino lehen, Diputazioko Garraio eta Errepide departamentuan aurkeztu behar direlako.

Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoa eta Arabako diputazioek martxan jarritako Debasa garapen agentziaren zuzendaritzapean egindako ibilbideak hiru tramo edo zati izango ditu: Etxabarritik (Gasteizen) Eskoriatzara bitarteko trazaketa Euroestudios-ek landu du; Eskoriatzatik Bergarako hegaldarainokoa Fulcrum-ek eta, azkenik, Bergaratik Maltzagara bitartekoa Prointec enpresak egin du. Sener enpresa izan da lan guztia errebisatu eta koordinatzeko ardura izan duena. Autopista, beraz, Gasteizeko Etxaba-

rri-Viñako lotunean hasiko da eta Maltzagara arte 45,5 kilometroko luzera izango du.

Finantziarioa

Presupuestoari dago-kionez, Europa eta Estatuaren arteko komunikabidea izateko asmoa duen autopistak 98.000 milioi pezetako aurrekontua dauka eta lanak hiru urte t'erdiz iraungo dute. Abendu bukaerarako obren adjudikazioa lehiaketara ateratzea espero da. Bien bitartean Gipuzkoako Diputazioak autopistaren finantziario au-

Autopistak 12 tunel izango ditu eta beste horrenbeste bidezubi; guztira 45,4 kilometro eta horietatik 12,2 kilometro tunelpean egingo dira

kera ezberdinak aztertu beharko ditu. Diputazioak Europar Batasunaren laguntza jasotzea espero du baina laguntza horiek Estatuaren bitartez banatzen direnez, Madrilgo gobernuak Euskal Autonomi Elkarteari beste edozein komunitateri es-

keintzen dion tratu bera ematen dio. Errepideen ardura Euskal Autonomi Elkartearen diputazioen esku dagoenez (EAEn eta Nafarroan ezik, Estatuan gobernu zentralak eta autonomiek eraikitzen dituzte errepideak), diputazioek finantziario berezi

bat aldarrikatzen dute Eibar-Gasteiz autopista eraiki ahal izateko.

Hamabi tunel

Autopistak 12 tunel (Gipuzkoan gehienak) eta beste horrenbeste bidezubi izango ditu.

Trazaketaren zailtasunaren lekuko, ibilbideko 12,2 kilometro tunelpean egingo direla. Gipuzkoan eta Araba elkartuko dituen Arlabango tunelak izango da luzeena, 3,4 kilometro izango baititu. Bestalde, Bergarari dagozkionez, Soraluze eta Bergara artean Gallastegiako tunela (2.370 m.) egingo da, Mekolalde baino aurreragoko Lezarriko (1.220 m.) jarraian eta azkenik, San Martzialeko tunela, 1.400 metroko lu-

LEINTZ-GATZAGA/LANDA PROPOSAMENA

Dauden errepideen hobekuntza sakonaren alde

Azken urteotan zeresan ugari eman du Eibar-Gasteiz autopistak. 1970ko hamarkadan heldu zion Estatuak Burgos eta Maltzaga bitarteko autopista egiteari baina autopista horren lehendabiziko tramoak (Burgos-Armiñon) jaso zuen erantzun eskasak beste bien eraiketa (Armiñon-Urbina eta Urbina-Maltzaga) baztertu zuen.

1989an Gasteizeko gobernuak proiektuari eutsi zion berriz, autobia edo autopista bat egiteko zalantza izan arren. Azkenik, 1992ko abenduan Maltzaga-Urbina autopistaren eraiketa konfirmatu zen. Orduetik gizartean sortutako polemika handia izan da proiektu honen inguruan eta autopistaren kontrako ahotsak baretzeko helburuarekin Debasak Interbentzio Gune Partehartzaileak (IGP-NIP) jarri

zituena martxan, herritarrei proiektua eztabaidatu eta lantzeko aukera emateko asmoz. Baina IGPTan jasotako emaitzak eta hauen irakurketak berriz ere polemika piztu zuen alternatiba ezberdinetako defendatzaileen artean. Horrela, Eibar-Gasteiz autopistaren proiektuari aurre egiteko Leintz-Gatzaga/Landa proposamenaren aldeko taldea sortu zen. Talde honek bailarako errepideetako komunikabideek hobekuntza sakona behar dutela aitortzen du, bailara barneko zein kanpoko komunikabideak hobetu behar direla azpimarratuz. Hori lortzeko Euskal Herriko bizkarhezurra den Bilbo-Durango-Bergara-Beasain-Tolosa-Iruñea bultzatzeko premia ikusten dute, egin diren saihebidetako erabiliz eta hobetuz eta hirugarren karril, errotonda, desdoblamentu

etabarretan oinarrituz. Autopistaren kontra azaltzeko arrazioen artean bailarako trafikoen beharrei ez diela erantzuten esaten du Landa-Gatzagako taldeak. Autopistarekin hiriak denbora gutxiagoan lotzea lortzen dela baina herri txikiak bigarren plano batean geratuko direla argudiatzen dute eta ingurugiroaren ikuspegitik ere onartezintzat jotzen dute autopista. Gaur egungo errepidea sakonean hobetzea defenditzeaz gain, autopistarekin diru galera izugarria izango dela aurreratzen dute. Bilbo-Behobia autopistaren peajea lehen bait lehen liberalizatzearen aldekoak dira eta autopista berriarekin A-8 autopistaren peaje kontzesioa luzatzea bilatzen dutela diote. Bukatzeko, garapen ekonomikoa ez dago autopistari zuzenean lotuta talde honen ustez.

Deco-Textil

ZANGITU


**Etixerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.**

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



Mikel Gaztelurrutia

Piano eta solfeo klaseak
(Goi mailako titulaziodun maisua)
Tf. 76 50 59



REMENTERIA

Altzariak

**Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak**

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

zera izango duena. Bidezubiak, berriz, Elgetarako bidearen gainean, Ipiñarri baserritik Zaldumendira bitartean eta Tavesa inguruan (Oñati alderako errepide gainean) joango dira. Jose Antonio Etxeberria Udaleko Hirigintza zinegotziak azaldu digunez, "Bergararik Maltzagara bitarteko ia ibilbide osoa tunelpean egingo da eta tartean bi bidezubi izango dira. Lezarriko tunela lehengo Codornices enpresaren ostean bukatuko da eta San Martzial azpian joango dena Gaittao azpiko zelaietan gutxi gorabehera, Aldeta baserria eta Hondakinaren Deposito Alternatiboaren artean. Era berean bi peaje kokatuko dira berrian, Ondartzako harrobien aurrean bata (autopista harrobien atzetik pasako da) eta Ipiñarri baserritik gora bestea. Ondartzako enlazean kosta aldera joateko sarrera eta kosta aldetik etortzeko irteera bakarrik izango dira eta Zaldumendi inguruko enlazean, berriz, Gasteizera joan-etorria edo Maltzaga alderakoa egiteko aukera izango da. Bestalde, Telleria inguruan Beasain-Durango eta autopista lotzeko errotonda bat egingo da eta Aisti baserriaren ostean beste tunel bat ere aurreikusten da. Epele inguruan ere beste peaje bat joango da".

Alegazioak

Udaleko Hirigintza Batzardea autopistaren trazaketa aztertzen ari da egunotan irailaren 30a baino lehen (epea zertxobait luzatzeko aukera egon daiteke) Diputazioan beharrezko alegazioak aurkeztu ahal izateko. Jose Antonio Etxeberriaren hitzetan, "oraindik ere proiektua goitik behera hobeto aztertu beharra daukagu eta bemendik

iraila bukaerara arte alegazioak landuko ditugu. Egia da autopistak eragin handia izango duela ingurunean baina soluzio errezik ez dago gai honetan. Nire ustez, puntorik konfliktiboenak Ondartzako inguru hori, Zaldumendikoa eta Aldeta azpiko baserriaren ondoan egin beharko den terrenu tapatzea izango dira".

Herritar dexente ere hurbildu da egunotan Bu-

lego Teknikora kontsultak egiteko; "bai, jendea etortzen da eta autopistaren ibilbidea zatika ezagutzeko aukera dagoenez eta partzelak ondo finkatuta daudenez, gehienak expropiazioak edo desjabetzeak, terrenuen denbora baterako okupazioak eta horrelakoengatik galdetzen du batetik bat. Orokorrean esan daiteke jendeak proiektua nabiko ondo ezagutzen duela".

Bergaran bi peaje kokatuko dira: Ondartzako harrobien aurrean bata eta Ipiñarri gainean bestea. San Anton ermita ez da lekuz aldatuko



Eibar-Gasteiz proiektua ezagutzeko eta alegazioak egin ahal izateko erakusketa zabaldu da Udaletxean.



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre. Tf. 76 71 19

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

AGOITZ

Tapizdenda


San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

Eibar-Gasteiz autopista beharrezkoa ikusten duzu?



Laureano Askargorta

Nire ustez bailararen onerako izango da, gaur egun Gatzaga eta Arlabango portuetan arazoak izaten dira eta. Alternatibetatik beharbada onena autopistarena da.



Jose Martin Arregi

Zerbait egin beharra dagoela dudarik ez dago, orain dauden bideak ez daudelako behar bezala gertatuta. Autopista baino autobidea nahiago dut.



Begoña Zubizarreta

Mendia ez badute gehiegi izorratzen ondo iruditzen zait autopista egitea. Komunikabideak hobetu bai, baina ingurunea zainduz.



Kontxa Martinez

Autopistak eragin ekologiko handia izan dezake baina argi dago zerbait egin beharra dagoela. Baina daukaguna errespetatuz...



Mertxe Zapata

Beharrezkoa ikusten dut, ingurune honetan, Bergaratik Gasteizera bitartean trafiko arazo asko dagoelako. Hori konpondu beharra dago.



Enrike Aperribai

Argi dago komunikabideak asko hobetuko direla autopistarekin baina ez dakit norainoko eragin ekologikoa izango duen horrek.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono, 761051

R. S. I. 209374 - 55

BERGARA

TABERNA ZAHARRA

Jatetxea

bazkari eta afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR


EDEL TAPIZDENDA

Etterako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta, 14 BERGARA



Txiste txar bat

Atera omen da Botere Judizialeko Kontseilu Orokorren txostena, Espainiako justiziaren egoeraren berri ematen diguna. TBko esatariak labur aipatu zuen: kezkatuta dabilta epaile nagusiak hainbat eta hainbat arrazoiengatik herritarren aurrean zabalduko irudi penagarriaz. Bitarteko gehiago behar omen dute atzeratutako kasu andana aurrera ateratzeko eta, gainera, juezak estu lotu, ez baitute behar bezala betetzen beren lan ordutegia.

Apustu egingo nuke, ageriko inozokeria izan litekeen arren, ezetz agertu txosten horretan hitz erdirik ere, atxilotu eta presoek sufritutako tratu txar eta torturei buruz. Gaizkilerik zitalenak ere ba omen dauka, estatu hau gobernatzen duten legeen arabera, behar bezala tratatuak izateko eskubidea, hedabideen erretollik behin eta berriz gogorarazten digunez. Baina justizia honen ustela gordezteko saiok ustel ateratzen zaizkie batzuetan, eta nahi duena behintzat enteratu egiten da. Azkenaldi honetako kasu bat aipatzeko, hor dugu Benjamin Ramos, Alemaniako estraditaturiko presoaren epaiketaz hango behatzaileek jakinarazi digutena: Entzutegi Nazionalako juezek tratu txarren bidez lortutako informazioak froga baliagarritzat jotzeak denondako arrisku latza dakar, torturatzailerik aurrerantzean berdin jokatzeko aukera ederra ikusten dutelako.

Ez da kontu berria, antzin-antzinatik datorkiguna baizik, eta darraigun martxan konpontzeko itxuririk batere ez daukana. Eta horretaz pentsatzean beti etortzen zait burura aspaldian kontatu zidaten txistea, entzundakoan barrenak nahastu eta barre beltza aterarazi zidana; polizia europarren txapelketa hasi da, zeinek ekarri erbirik haundiena. Abiatu dira denak, eta esandako ordurako, hor datoz alemanak sekulako erbia dakartela, ingelesek haundiagoa, holandesek ere izugarria, eta holaxe besteek ere. Baina, zein falta? eta... espainolak! Pasatu da ordu bat, bi ordu, hiru eta azkenean, iluntze aldera, hor iristen dira elefante jipoitu bat odoletan, ibili ezinda, ia-ia arrastaka dakartela. "Aizue, erbia zen ekarri beharrekoa, ez elefantea". Eta elefanteak: "Erbia naiz! Erbia naiz! Non firmatu behar da?".

Iñaki MOZOS



Beste ondorioak

Lady Diren heriotz istripua notizia, polemika eta sentsazionalismo hutsa baino arutzago doa tartean dauden faktore ekonomikoak direla eta. Faktore hauetako bat (kurioso bera) Mercedes marka alemaniarraren seguritate irudiari egin dion kaltea da, printzesaren heriotza marka horretako autoan zihoala gertatu baitzen.

Argi dago Mercedesek ez diela ziurtatzen bere bezeroei 180 kilometro orduko abiadura baino haundiagoan zutabe baten kontra izandako txokean bizirik aterako direnik. Baina egia da milaka milioi marko gastatu dituela publizitate kanpainetan orain Lady Dik zalan-tzan jarri duen seguritate ezaugarri hori azpimarratzeko.

Logikoa da Mercedesek istripua izan eta handik egun gutxira erakutsitako jarrera, modeloa bere gamako onenetakoa baino, xumeenetakoa zela argituz eta,aldi berean, istripuaren arrazoiak argitzeko alemaniar ingenieritzaren kolaborazio guztia eskeintzeko prest zegoela adieraziz.


Dotoretasuna eta berezitasuna dira Mercedesen ezaugarri nagusiak, baina kasu honetan oso suerte txarra izan du bere modelotako bat horrenbeste zeresan izan duen heriotz bateko nahigabeko aktore protagonista bihurtu delako.

Etsiak ez dira autoan errugabetu eta gidaria errudun bihurtzeko Mercedesek egindako azalpenen zai egon, eta dagoeneko bere autoen seguritatea azpimarratzen duten publizitate kanpainak martxan jarri dituzte.

Bere irudia hobetzeko baliabideak gehitu eta beste pertsona ospetsurik Mercedes batean hil ez dadin erreztatzea besterik ez zaio geratzen Mercedesi.

Juan Antonio MIGURA

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**FRANTSSES
IRAKASKUNTZA**

97-98

ikasturtea

Izena emateko epea:
irailaren 30era arte.

Informazio gehiago:

Mizpildi, 3 1. ezkerre. Bergara.

Tf. 76 30 55

Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00



■ Ezkontza

Inma Hermosilla eta Fernando Carasatorre bergararrak joan zen irailaren 6an ezkondu ziren. **Sierbetan** ezkontza izan ondoren, familiarrekin eta lagunekin batera bazkaria izan zuten Lasa jatetxean. Lagunek bidalitako argazkian, ezkonberriak bazkariaren aurretik ikus ditzakezue. Fernando eta Inma **Ekueadorren dira orain ezkontza bidaia egiten** eta hiru aste barru itzuliko dira. Zorionak!!



■ Orioren jarraitzaileak

Nahiz eta San Martin jaiak izan, bergarar koadrila honek ez zuen domekan hutsik egin **Donostiako estropadak** ikustera joateko orduan. Azken urteotako ohitura eta programari eutsiz, goizean **Oriora kotxeetan joan ziren eta handik Igeldoraino oinez**, hiru bat orduko ibilaldia egin ondoren. Igeldon

estropaden ikuspegi ezinhoba zutela, Orioren garaipenarekin gozatu zuten eta jarraian Ondarretara joan ziren baina bat hartzera, primerako eguraldia izan zuten eta. Eguna borobiltzeko arratsaldean Orioko arraunlariei eskeini zitzaizen ongi-etorrian ere izan ziren. Hori afizioa!!

Gallastegi
Jostundegia
 Mahoizko lanerako jantziak
 San Pedro ☎ 76 10 85

KONDE

 Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

ARTISAUTZAKO IZOZIA
GOXO-TOKI
 D. Iraila, 3 - Tlf. 761235
 Matxotelegi, 34 - Tlf. 762337
 BERGARA



■ **Eskolara!**

Opor luzeen ostean nekeza izaten da berriro eskolara bueltatzea baina eguastenean klaseak hasi zituzten haurrek ez zuten aurpegi txarrik erakutsi. Gurasoen laguntzaz ikastetxera joan, lagunekin elkartu, koadernoak zabaldu eta berehala ohituko ziren eguneroko martxara. **Mariaren Lagundian** (argazkian) 4 eta 5 urtekoak hasi ziren eguastenean eta gaur, eguakitzan, 3 urtekoak hastekoak ziren. Era berean, DBHkoek ere ikasturte berriari hasiera eman diote; **Aranzadi Ikastolan** haur hezkuntza eta lehen hezkuntzakoak jarri dira martxan aste honetan eta beste horrenbeste egin dute DBHko ikasleek; goiztiarrak, berriz, **San Martin ikastetxe**koak izan genituen, hilaren 8tik (goizez bakarrik bada ere) klaseetan baitira guztiak. Astelehenetik goiz eta arratsaldean izango dituzte klaseak eta egun berean 3 urtetik beherakoei lehen aldiz klasera joateko ordua helduko zaie.



Zertan dihardute ba?



Mikel Laskurain

aktoreak Hika antzerki taldearekin parte hartuko du Guggenheim museoaren inaugurazio hamabostaldian. Guggenheim museoaren inaugurazioa urriaren 18an inauguratuko da eta urriaren 3tik 17ra bitartean hainbat kultur ekitaldi antolatuko dira. Hikak haurrei zuzendutako "Babalibu babaliba" antzerki emanaldia eskeiniko du hilaren 5ean museoaren kanpoaldean. Hikaren azken lanen artean "Henry Bengoa inventarium" eta "Hau komeria" aipa daitezke. Bestalde, Mikelek "Goenkale" telesaileko etapa berriari lanean jarraitzen du.

IZADI PILI GISASOLA
 Zurradero, 2 behea.
 ☎ 76 58 83
Santiveri
 Osasun eta Dietetikan espezializatutako zentrua

ZUBIETA
 elektragintza
 MOTORREN BOBINAKETA
 ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
 Kruz Gallastegi, 2 behea
 ☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
 PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
 Leihoak, ateak, manparak...
 Esku ezazu aurrekontua konpromezu barik
 Erakusketa: Masterroka 14, behea BERGARA
 Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Josean Azkarate

Oñatiko ostalaritza eskolan sukaldaritza ikasketak egin zituenetik Santa Agedan edo Gaspar jatetxean sukaldari lanak egin ditu. Joan den uztailetik, berriz, Gorkako Belatz kantina berrian ari da lanean.

- Zergatik Belatz?
- Askatasunaren sinonimo delako.
- Zela hasi zinen sukaldari lanetan?
- Konturatu nintzenean hau zela nire bidea.
- Etxean norik prestatzen du bazkaria?
- Neuk.
- Haragia ala arraina?
- Arraina.
- Plater gustokoena?
- Txipiroiak plantxan.
- Edari bat?
- Ardoa.
- Jatun ona zara?
- Bai.
- Jan ezin duzun zerbait?
- Dena gustatzen zait.
- Zeuk prestatutako bazkaria ala besteena nahiago?
- Segun momentua...
- Ogitarteko bat?
- Txerri belarriarena.
- Zer gosaltzen duzu?
- Yoghourta zerealekin.



“Askatasunaren sinonimo delako jarri nion Belatz izena kantinari. Plater bat? Txipiroiak plantxan adibidez. Sukaldaritzan txinoa ere asko gustatzen zait”

- Gozozalea zara?
- Batzuetan.
- Tarta bat?
- Gaztarena.
- Ondo jaten den toki bat?
- Lasan.
- Sukaldari bat?
- Joseba Lamariano.
- Sukaldaritzan liburu bat?
- “La cocina economica”, Jose Castillorena.
- Sukaldaritzan atzeritar bat?
- Txinoa.
- Fregaua eskuz ala ontzigarbigailuarekin?
- Eskuz.
- Zelako jendea hurbiltzen da Belatzera?
- Denetik: jubilatua, mendizaleak bikote gazteak seme-alabekin... Jolasteko inguru polita da hau.
- Tabernan musika ala irratia?
- Irratia, “Radio 3”.
- Kantari bat?
- Mikel Laboa.
- Mendi bat?
- Anboto.
- Irakurritako azken liburua?
- “El escandalo Modigliani”, Ken Follet-ena.
- Filme bat?
- “El silencio de los corderos”.
- Mus jokalaria ona zara?
- Erregularra.
- Espainiako itzulia jarraitzen duzu?
- Bai, telebistaz.
- Zer gertatzen zaio Olanori?
- Ez duela igotzen.

97-98 IKASTURTEA

INGELES A

FRANTSES A

ALEMANA

MATRIKULA epea irailaren 2tik 26ra

INFORMAZIOA: Bergarako UNED (3. pisua) Tf. 76 06 87 Bulego ordutegia: 10-13 eta 16-20

Ikasturtearen hasiera, urriaren 1ean.

- Talde txikiak.
- Maila guztiak.
- Adin guztiak: gazte, heldu eta...
- UMEENTZAKO HASIERA IKASTAROK (6urtetik aurrera).
- Azterketa ofizialen prestakuntza.
- Hiru hilabeteko ikastaro trinkoak
- Goizez, eguerdiz eta arratsaldez.



ETXEBIZITZA

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 56 99.

Pisu amueblatua salgai Osintxun. Prezio onean. ☎ 76 36 61 (arratsaldez).

Pisu amueblatua salgai. ☎ 76 49 30 (gauzez).

Pisu txiki bat alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 04 57.

Garajea alokairuan Ibargarain. ☎ 76 13 86 (gauzez).

Garajea salgai Masterrekan. ☎ 76 24 57.

Garajea alokairuan Torreku. ☎ 76 30 32.

Etxea salgai Maduran. ☎ 76 29 08.

Garajea saldu edo alokatzen da Santa Marinar. ☎ 76 47 27.

Garajea saldu edo alokatzen da San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

Garajea alokairuan Matxiategin. ☎ 76 16 38.

Pisua alokairuan hartuko nuke Bergaran. ☎ 76 06 16.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 23 84.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 76 42 65 (gauzez).

Garaje bikoitza alokairuan Ibargarain. ☎ 76 57 69.

Pisu bat alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 59 54.

DENETARIK

Vitus bizikleta salgai. ☎ 76 08 21 (20:30-22:00).

Ford Orion kotxea (1.6 D) salgai. ☎ 76 71 12.

Bi lagun behar dira Gasteizen pisua osatzeko. ☎ 76 28 17.

Matxiategin pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 76 30 01.

Renault 5 GT Turbo kotxea salgai. ☎ 76 57 87.

Brillantedun brotxea galdu dut jaietan Plaza inguruan. ☎ 76 23 27.

Astebarruan pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 76 59 08.

Burgosen pisua osatzeko ikaslea behar da. ☎ 79 28 05 (Onintza).

Windsurf egiteko taula salgai. ☎ 76 47 71.

Aulki ergonomikoa oparitzen dut. ☎ 76 08 92.

Tabernako makinan erabiltzeko, duro berriak zaharren truke. ☎ 76 20 07.

Arrantzako kainaberak salgai. Matxiategi 29, lehen pisua ezkerre.

Kitarra espainola salgai. ☎ 76 36 11 (Eider).

Butanozko berogailua eta egurrezko kalefazio galdara salgai. ☎ 74 41 28.

LANA

Matematika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

Neska eskeintzen da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako ☎ 75 17 43 (Rakel).

Haurrak zaindu eta etxeko lanetarako emakume euskalduna behar da. ☎ 76 27 76.

Klase partikularrak ematen ditut. ☎ 76 30 35.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 13 46.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 04 34.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Haurra zaindu eta etxeko lanetarako neska euskalduna behar da. ☎ 76 05 30.

Sukaldari laguntzailea eskeintzen da. Esperientziarekin. ☎ 76 00 90 (Orlando).

Neska euskalduna behar da zapatu eta domeketan denda batean lan egiteko. ☎ 76 23 89.

Windows 95 (Word eta Excel) programako irakaslea behar dut. ☎ 76 06 87.

Mate, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 20 04.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 23 67/76 22 90.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Haurdun bazaude
LAURA da zure jantzidenda.

Udazkeneko moda gaztea jatzeko,
neurria ez da izango arazoa.

Tailaje zabalena dugu.

Laura



Erdiko kale, 30 ARRASATE
Tf. 79 05 80

BONOFOTOA



Alexander Molano

Alexander Molanok jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Bergarako udalean 1953az geroztik izandako bost alkateren izenak eskatzen genizkizuen eta Alexanderrek hauek jarri ditu: **Luis Laskurain, Jose Luis Elkoro, Jose Antonio Zabala, Imanol Bolinaga** eta **Victoriano Gallastegi**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Alexander Molanori** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zein da baserri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 PTA

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

Hizkuntza Eskola Ofiziala *Otaola etorbidea, 29 EIBAR Tf. 20 06 48*



MATRIKULA OFIZIALA 1997-98

MATRIKULA SOBREAK JASOTZEKO ETA PLAZA HARTZEKO EGUNAK

1. TXANDA

96-97 ikasturtean Eskolako ikasle ofizialak izan direnak. Klasera huts egiteagatik ofizialtasuna galdu dutenak txanda honetatik kanpo geratzen dira.

Irailak 16, arratsalde:	4a ingelesa, frantsesa eta euskara.
Irailak 17, goizez:	3a ingelesa.
arratsalde:	1a, 2a, 3a frantsesa eta euskara.
Irailak 18, goizez:	1a, 2a ingelesa.
Irailak 23, arratsalde:	5a ingelesa, frantsesa eta euskara.

2. TXANDA

96-97 ikasturtean Eskolako ikasle libreak izan direnak, ofizialtasuna galdu dutenak eta beste H.E.O.etatik.

Irailak 22, goizez:	4a ingelesa, frantsesa eta euskara.
Irailak 18, arratsalde:	3a ingelesa, frantsesa eta euskara.
Irailak 19, goizez:	1a, 2a ingelesa, frantsesa eta euskara.
Irailak 23, arratsalde:	5a ingelesa, frantsesa eta euskara.

3. TXANDA

Ikasle berriak H.E.O.etan inoiz matrikulaturik izan ez direnak (tokirik balego).

Irailak 24, goizez:	1a ingelesa (18 urtetik gorakoak).
arratsalde:	1a ingelesa (16 urtetik gorakoak).
Irailak 25, goizez:	1a frantsesa eta euskara.
arratsalde:	1a ingelesa (16 eta 14).

OHARRAK

- Beharrezkoa da NANA edo eskatu denaren ziurtagiria aurkeztea matrikula egiteko.
- Ikasle ofizial eta libreak H.E.O.eko agiria aurkeztu beharko dute.
- Matrikula, sobrean jartzen duen egun eta orduan egingo da.
- Maila batean matrikula egiteko, aurreko maila gainditua izan behar da.
- 96-97 ikasturtean Zikloko azterketa egin dutenek bakarrik egin ahal izango dute matrikula hizkuntza bereko maila ezberdinetan, azterketa horretarako notak ikaslearen maila adieraziko duelarik.
- Bulego ordutegia: 9.30-13.00 eta 14.30-18.00. Ostirala: 9.30-13.00.
- Lekua ematerakoan kontutan hartuko da etortzearen ordena.

Trikiti eskola


Matrikula zabalik irailaren 26ra arte



Grafologia ikastaroa

Idazkeraren bidez ezagutu ezazu zure nortasuna

Urriaren 7tik azaroaren 11ra
Astartetan 6.30etatik 8.30etara
Irakaslea: Irune Ibarra
Izena emateko epea urriaren 3an bukatuko da.



Ikastaro hautan izena emateko deitu 76 36 61 edo 76 08 19 telefonora; bestela, zatoz Jardunera!

1997-98ko Bergarako eskubaloia



LEHEN MAILA TERRITORIALA. Goian: Aitzol Altuna, Raul Pozo, Aitor Aldanondo, Jose Ramon Iturbe, Ander Aretxa, Ekain Sotil eta Xabier Lijo (entrenatzailea). Behean: Garikoitz Arregi, Aitor Gomez, Gotzon Aranguren, Iban Osa, Eugenio Cabo, Aritz Mazkieran eta Edu Iñarra.

BKEko eskubaloia sailak 5 talde jarriko ditu jokoan aurtengo denboraldian. 3 talde gizonezkoenak eta 2 emakumezkoenak. Lehen maila territorialean jokatu du gizonezkoen talde nagusiak eta asmoa denboraldi ona egitea da. Horretarako iazko talde ia berbera dute eta Xabier Lijok entrenatzaile postuan jarraituko du. Orrialde honetan eskubaloia saileko talde guztien argazkiak ikusi ahal izango dituzue.



JUBENIL MUTILAK. Goian: Ibai Gomez, Mikel Agirrezabal, Aritz Lamikiz, Urko Altzerrea, Gaizka Osa, Unai Oteiza eta Josexo Munitegiandikoetxea (entrenatzailea). Behean: Ortz San Andres, Xabier Barrero, Asier Mujika, Ruben Sanchez, Iban Orgaz, Iñigo Arregi eta Joseba Larrañaga.




JUBENIL NESKAK. Goian: Jone Azkarate, Edu Orgaz (entrenatzailea), Argiñe Zurutuza, Irati Sasieta eta Nagore Davila. Behean: Ane Arietealeanizbeaskoa, Itsaso Basauri, Maite Gallastegi, Oihana Garmendia eta Nora Madariaga.



KADETE MUTILAK. Goian: Aitor Gomez (entrenatzailea), Iñaki Aranzabal, Ibon De Benito, Iker Retolaza, Gorka Unamuno, Ion Mendizabal, Joseba Inza, Gurutz Urbistondo eta Edu Iñarra (entrenatzailea). Behean: Kepa Castro, Arkaitz Gimbert, Egoitz Sanz, Joab Garcia, Sergio Luke eta Iosu Labaka.



KADETE NESKAK. Goian: Nekane Plazaola, Nagore Iñurrategi (entrenatzailea), Junkal Arriola, Maialen Madariaga, Erika Artega, Serezade Moreno eta Ariane Kareaga (entrenatzailea). Behean: Edurne Hurtado, Larraitz Berraondo, Ainhoa Unamuno, Sara Larrañaga eta Idurne Orobengoa.



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Bolintxo

O K I N D E G I A

domeketan ere zabalik

Zurradero, 2 behea Telefonoa 76.01.26

FUTBITO PARTIDUAK

Zapatuan kanpoan

09:00: SLO-AMILOTX
 PATXARAN TEAM
 10:00: PATXARAN TEAM-AMOZKIBAR
 ALDOKA MALDOKA
 11:00: ALDOKA MALDOKA-MOSKIS
 MRW
 12:00: MRW-SHAKTALE
 EZINLEIKE
 13:00: EZINLEIKE-IGANDEKOAK
 SHAKTALE
 16:00: AZF ETXAGI-BAR CANALEJAS
 ARI ARI GANBARA
 17:00: ARI ARI GANBARA-KAIXO
 AGIRREBEÑA JATETXEA
 18:00: AGIRREBEÑA-INDARGORRI
 MANITOU
 19:00: MANITOU-POLIDEPORTIVO
 INDARGORRI

Domekan barruan

16:00: ERROTAGAIN-ETXAGI
 AGINASPI
 17:00: AGINASPI-PAGOMENDI
 AZPEITXI JATETXEA
 18:00: AZPEITXI JATETXEA-ARLOTEAK
 BILDURBAREK OPEL/LAM
 19:00: BILDURBAREK-MONGATXURRAK
 ORTZI
 20:00: ORTZI-JAUJA OH ZEREZOS
 MONGATXURRAK

Domekan kanpoan

09:00: ARTUSAMAK-TXIPIRON
 AUTOBEREZI
 10:00: AUTOBEREZI-BAYER
 ERDIBITERRAK
 11:00: ERDIBITERRAK-UVE BIKOITZA
 GUADALEST
 12:00: GUADALEST-MATXAKATEGI
 LA JUVE
 13:00: LA JUVE-FAC
 MATXAKATEGI
 16:00: ERI SIRIMIRI-ETENGABE
 NEKROFILIKOS
 17:00: NEKROFILIKOS-LA PEÑA DML
 UFALA
 18:00: UFALA-PATATUS
 LA PEÑA DIOS ME LIBRE

Iñaki Irigoien

Atletismoan aurreko postuetan

Iñaki Irigoien Zaleak atletismo taldeak antolatutako San Martin herri krosean 18 urteko kategorian bigarren postuan sailkatu zen Karlos Aldai taldekidearen atzetik. Izan ere 4 urte Zaleak taldean ibili ondoren aurtengoa konpetizioan egiten duen azkenengo urtea du Irigoienek.

- Zer moduz zapatu-ko lasterketa?

- Nahiko gaizki, fisikoki ez bait nengoen oso ongi. Udan ia ez naiz entrenatu eta lasterketa oso gogorra egin zitzaidan.

- Denboraldian zehar nola moldatu zara?

- Aurten oso proba gutxi korritu ditut. Beste urte batzuetan gehiago aritzen ginen. Ikasketengatik konpetizioko lasterketak laga egin ditut, baina nire kontura kirola egiten jarraitzeko asmoa dut.

- Zergatik ez da animatzen jende gehiago lasterketetan parte hartzera?

- Beste kirolek fama gehiago dute eta korrika egitea oso sufritua da.

- Distantzia luzeak ala motzak nahiago?

- Egin dudan proba motzena 600 metrokoa izan da eta hor egin nuen denborarik onena. Halere nahiko antzera ibiltzen naiz bi distantzietan.

- Beste probaren batean parte hartzeko asmorik baduzu?

- Bai, herri krossen batera joango naiz eta azaroan Behobia-Donostia korritzeko asmoa dut.

Gabonetan Bergaran antolatzen den San Silbestrean ere aritzea espero dut. Beste urte batzuetan kross askotan parte hartu izan dut eta gehien gustatu zaidana Lasartekoa izan da.

- Zergatik ez da animatzen jende gehiago Bergaran atletismoa egitera?

- Agian Bergaran korrikalari on bat irtetzen bada jende gaztea gehiago animatuko da.

- Nola hasi zinen korrika egiten?

- Beste kirolekin oso txarra naizelako eta esfortzuko probak gustatzen zaizkidalako.

- Zer da gogorragoa entrenatzea edo lasterketan aritzea?


- Lasterketa gogorragoa da esfortzu handiagoa egin behar duzulako. Entrenamenduak batez ere neguan izaten dira gogorrak, euria eta hotza egiten duenean.

- Maratoirik egiteko asmorik badaukazu?

- Bizitzan behintzat bat korritzeko asmoa daukat. Karlos Aldai taldekidearekin batera, New Yorkeko maratoira joateko ametsa daukat.

- Gehien gustatzen zaizun korrikalaria?

- Grebeselasie etiopiarra asko gustatzen zait.



"Korrika egitea oso sufritua da".

“Lagun batekin batera, New Yorkeko maratoira joateko ametsa daukat”



Argazkia: Pili Osinalde

Danborrada japoniarreko geishak. 1967

Joan zaizkigu aurtengo San Martin jaiak eta zapatuko feria, bertso jaialdia, Alaitz eta Maiderren emanaldia edota danborradak izango dira askoren oroimenean. Aurtengo danborradak izan dute nobedaderik: barrilerak, artilerokak, japoniarrak...

Danborrada japoniarra aurtun errekuperatu da berriz ere. Orain dela 30 bat urte antolatu zen azken aldiz eta orduan ere, aurtun bezala, geishen jantzi koloredun eta dotoreak ikusmin handia sortarazi zuten.

Aste honetako argazkia 1967.ko San Martinetako danborradakoa da eta bertan geisha jantzita joan ziren sei neskatu agertzen zaizkigu. Danborradan zehar karroza gainean joan ziren eta amaieran dantza saioa eskaini zuten Plazan jarritako oholtzaren gainean.

Hauek dira argazkian agertzen direnen izenak ezkerretik hasita: Raquel Gonzalez, Edurne Sotil, Isabel Juldain, Arantza Mujika, Pili Osinalde eta Nekane Mujika.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxe: 79 47 89
Santa Cruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxe: 77 13 08



zumelaga


JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

GIARTZU GIMNASIOA

Giartzu gimnasioa
Tf. 76 35 71



ETXE MOBEL

MUEBLES

ALTZARIAK

LOGELETAN

espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabiloia,
San Andres auzoa)
Tfnoa eta Faxe: 79 41 82
ARRASATE

Larunbat
arratsaldeetan
zabalik!!



Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!